

[Egilea: Wallander](#)

Orion bidea 9ko Bizilagun Komunitatea
202_ko ___ren ___ko bileraren AKTA

Etorriak: A.G. (1. ezk), I.I. (1. esk), A.M. (2. ezk), L.N. (2. esk), J.L. (3. ezk), T.L. (4. ezk) eta M.D. (4. esk). Ezin etorria: G.L. (3. esk).

1. Aurreko aktaren onarpena.

Inork ez zuen irakurrita ekarri, bileran altuan irakurri behar izan zen. Aho batez onartu zen.

2. Larrialdi egoeraren ondorengoak.

Watxap taldea

Larrialdi egoera bitartean gure artean komunikatzeko eta koordinatzeko sortutako taldeak bere hasierako funtzioa gainditu eta ehunka audio, bideo eta meme ezberdinen saski-naskia bihurtu da. Horregatik, taldea desegitea proposatu du komunitateko kide batek.

Eztabaida piztu da. Kide batzuek mantentzea eskatu dute, bestelako watxap taldeetara birbidaltzeko kalitatezko materiala (aipamen berezia T.L.-ri) bidaltzen delako aitzakiarekin.

Taldea mantendu egingo da, baina izena aldatuta eta nahi dutenek bakarrik jarraituko dute bertan.

Zortzietako txaloak

Osasun eta artatze zerbitzuetako langileen oroigarri gisa sortutako ekimenak bere bidea egin zuen gure komunitatean. Elkarri animoak eman eta denbora pasa gisa, musika eta kantua gehitu genion.

Musika zaletasun ezberdinak errespetatzeko ere, mota eta jatorri ezberdinei bide eman zitzairen. Ondorioz Alfa Zentauri kaleko 6. portalak salaketa jarri zigun. Abokatuarekin jarraipena egiten L.N. dabil, momentuz ez dago berririk baina "komunitateari zerbitzua" egiten geniolakoaren argumentua ez dela onartuko aurreratu du.

Errelatoa

Larrialdi egoeran bizitakoak, koordinaziorako hartutako neurriak, elkar babesteko eta animatzekoak, ondo egindakoak, gaizki irteandako esperimenduak, hurrengorako hobetzekoak eta abar jasotzeko, "Komunitatearen Errelatoa" idaztea eskatuko zaio G.L.-ri, idazlea izanik, ondo jasoko duela espero baita. Ezin izan da bilerara etorri. Onartu egin da.

Urteroko bazkaria

Larrialdi egoeraren amaiera egun ofiziala izendatu genuen ___ren ___a eta urtero M.D.-en txaletean bazkari bat egitea adostu zen. Dagoeneko urtea pasatu da eta hurrengo bazkarirako lan banaketa adostu da: J.L.-k erosketak eta sukaldari A.G. eta A.M.

3. Norberak lekarkeena

Larrialdi egoeran sortutako elkarkidetzeta eta komunitate giroari indarra emateko, kide batek proposatu du komunitateko bandera eta ereserkia sortzea. Ideiak bazkarian landuko dira eta gaia hurrengo bileran adostuko da.

II

I.I. (1. esk)

Orion bidea, 9 Bizilagun Komunitateko lehendakaria

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)